



**IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica**, es una revista en formato digital que publica artículos relacionados con los procesos de enseñanza y aprendizaje, a través de Internet y bajo la licencia Creative Commons.

**IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica**, es una publicación periódica, gratuita y libre de ser impresa que cada seis meses divulga artículos científicos, propuestas didácticas y artículos de opinión sobre cuestiones relativas al mundo de la didáctica.

**IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica**, asume como objetivo principal la difusión del conocimiento pedagógico y de metodologías didácticas que favorezca la expansión de prácticas de educativas efectivas.

**IKASTORRATZA, e-Revista de Didáctica**, es una revista bilingüe, abierta a propuestas de autores y autoras que deseen publicar trabajos inéditos tanto en euskara como en castellano.

# IKASTORRATZA. Didaktikarako e-aldizkaria

**IKASTORRATZA. e-journal on Didactics**

## IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica

ISSN: 1988-5911 (Online) Journal homepage: <http://www.ehu.es/ikastorratza/>

### Haurtzaroko sexu abusuak: prebentzio programa baten eraginkortasuna frogatzen

Ane Díez  
[anediez13@gmail.com](mailto:anediez13@gmail.com)

Zuriñe Gaintza   
[zuri.gaintza@ehu.es](mailto:zuri.gaintza@ehu.es)

To cite this article:

Díez A. & Gaintza, Z. (2019). Haurtzaroko sexu abusuak: prebentzio programa baten eraginkortasuna frogatzen. *IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica*, 23, 94-114. DOI: 10.37261/23\_alea/4

To link to this article:

[https://doi.org/10.37261/23\\_alea/4](https://doi.org/10.37261/23_alea/4)

Published online: 30 December 2019

# **Haurtzaroko sexu abusuak: prebentzio programa baten eraginkortasuna frogatzen**

**Ane Díez**

Departamento de Educación del Gobierno Vasco  
anediez13@gmail.com

**Zuriñe Gaintza**

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
zuri.gaintza@ehu.eus

## **Laburpena**

Azterlan honek, *Grita muy fuerte* programa erabiliz 6 eta 7 urteko 22 neska mutilen Haurtzaroko Sexu Abusuaren (HSA) inguruko babes-jokabideen ezagutza nola aldatu den ebaluatu du. Programa 60 minutuko astean behingo 5 saioz osatuta dago. Bere eragina zehazteko, programak berak barne hartzen duen aurre eta ondoko ebaluazioak egiten dira. Emaitzen arabera, alde batetik, ikasle guztiek hobeto dakite nola jokatu sexu abusuetatik babesteko, eta bestetik, generoari dagokionez, neskek mutilek baino ezagutza handiagoa dute. Programa eraginkorra dela sexu-abusuaren babes-jokabideen kontzientzia sustatzeko ondorioztatu da, eta, horregatik, komenigarria da horrelako esperientziak eskolen hezkuntza-proiektuetan ezartzea.

**Hitz gakoak:** Lehen Hezkuntza, Haurtzaroko Sexu Abusua, tratu txarrak, eskola, esku hartzea, prebentzioa.

## **Resumen**

Este estudio evalúa cómo cambia el conocimiento sobre las conductas de protección ante el abuso sexual de 22 niños y niñas de 6 a 7 años tras aplicar el programa “Grita muy fuerte”. El programa se desarrolla durante 5 semanas en sesiones de 60 minutos por semana. Para determinar el efecto del mismo, se realiza una evaluación con medidas pretest y posttest que incluye el propio programa. Según los resultados, por un lado, todo el alumnado mejora su conocimiento en conductas de protección contra el abuso sexual y por otro lado, en cuanto al género, las niñas tienen mayor conocimiento que los niños. Se concluye que el programa es eficaz para aumentar la conciencia sobre las conductas de protección contra el abuso sexual y que por ello es conveniente instaurar este tipo de experiencias en el proyecto educativo de los centros escolares.

**Palabras clave:** Primaria, Abuso Sexual Infantil, malos tratos, escuela, intervención, prevención.

## **Abstract**

This study assesses how knowledge about protective behaviours against sexual abuse changes among 6 to 7 year-olds 22 girls and boys, after implementing the programme “Grita muy fuerte” (Shout out loud). The program is developed over 5 weeks in sessions of 60 minutes per week. In order to determine the effect of it, an evaluation is carried out with pre-test and post-test measures included in the program itself. According to the results, on the one hand, all students improve their knowledge of protective behaviours against sexual abuse and, on the other hand, in terms of gender, girls have greater knowledge than boys. It is concluded that the programme is effective in increasing awareness of protective behaviours against sexual abuse and that it is therefore advisable to set up this type of experience as part of the schools' educational project.

**Key words:** Primary, Child Sexual Abuse, maltreatment, school, intervention, prevention.

## 1. Sarrera

Haurtzaroa jaiotzatik gaztetasunera arte doan etapari esaten zaio: zero eta hamaika edo hamabi urte bitarteko izaki heldugabea da haurra, guraso eta zaintzaileen babesu eta laguntza behar dituen garatu ahal izateko (Piaget, 1964). Neska-mutilek eskolan eta aisialdi tokietan eman behar duten aroa da haurtzaroa, familiaren eta heldu komunitate zabal baten maitasunari eta laguntzari esker indartsu, osasuntsu eta euren buruen jabe hazteko aldia, hain zuzen ere. Garai baliotsua da, eta hurrek beldurrik gabe eta tratu txarretatik zein esplotaziotik babestuta bizi behar dute (Pirozzi, 2005). Baina gizarte honen kide diren haur askok zailtasunak dituzte egunerokotasunean, eta batzuetan ez dituzte aseta euren behar edo premia gutxienekoak (Cusó, 1995), edo, are okerrago, babesgabetasuna eta tratu txarrak jasaten dituzte (Torres, 2010). Literaturak adierazten duen moduan, historian zehar etengabeak izan dira haurtzaroko tratu txarrak, eta edozein kultura, jendarte eta egoera sozialetan gertatzen dira (Losada, 2012). Osasunaren Mundu Erakundeak (OMS, 2016) honela definitzen ditu haurtzaroko tratu txarrak: 18 urtetik beherako norbanakoek jasaten duten edozein motatako atentzio falta edo abusua dira. Horrek barne hartzen ditu tratu txar mota guztiak: fisikoa edo psikologikoa, atentziorik eza, zabartasuna edota Haurtzaroko Sexu Abusua (HSA). Tratu txarra edozein delarik ere, haurren garapenean eragina izango duten disfuntzio eta egoera patologikoen sorrera azpimarratu behar da (Mesa eta Moya, 2011).

### *1.1. Haurtzaroko Sexu Abusua*

HSA n arreta jarritz gero, pertsona heldu batek ume batekiko duen nagusitasuna edo autoritatea edozein sexu harreman mota izateko erabiltzen duenean gertatzen den tratu txarra dela ulertuko dugu (Berliner, Briere, Hendrix, Jenny, Myers eta Reid, 2000). HSA helduek edo nerabeek haurrarekin izaten duten sexu jokaera desegokia bada ere, modu askotan ager daitekeen indarkeria mota da. Adibidez, erasoaren ezaugarriak kontuan hartuta, mota batekoa edo bestekoa izango da: *intzestua* familia harremana duen (gurasoak, aitona-amonak, neba-arrebak, osaba-izebak) edo tutore rola betetzen duen edozein pertsona heldurekin sexu harremanak izatea da (Alonso eta beste, 2011); *bortxaketa* umearekin odolkidetasunik ez duen pertsona batek umea sexu harremanak izatera behartzen duenean gertatzen da (Ibarzola, 2012); *sexu iraintzea* helduaren estimulazioa lortzeko umearekiko kontaktu sexuala erabiltzea da (Aisa et al., 2000); eta,

*kontakturik gabeko sexu abusuaren erasotzaileak ez du umea ukitzen, baina hura begiraturaz eta irainduz estimulatzen da (Castro, 1995).*

Zoritxarrez, HSAren inguruko datuak nahiko gordinak dira. Mundu osoan bost emakumetik batek eta hamahiru gizonetik batek HSA jasan baitute (OMS, 2016) eta Save the children (2017) erakundearen arabera, estatu espainolean haurren %10 - %20 bitartean jaso dute era bateko edo besteko HSA. Haurren Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenaren 34. artikulua aldarrikatzen duenez, “Estatu kideek haurrak edozein motatako sexu esplotazio eta gehiegikeriatik, baita prostituzio eta jarduera pornografikoetatik babestuko dituzte”, baina berriki egindako ikerketek baieztatu dute HSA mundu osoan barrena dirauen errealitatea dela (Barth, Bermetz, Heim, Trelle eta Tonia, 2013; Stoltenborgh, Bakermans, Ijzendoorn eta Alink, 2013). UNICEF (2014) erakundearen ikerketak ere errealitatea guztiz desatsegina dela erakusten du, 20 urtetik beherako 120 milioi neska (10etik 1) euren bizitzako uneren batean bortxatuak edo edozein motatako jarduera sexualak betetzera behartuak izan direla adierazten baitu, eta egoera guzti horiek haurren garapen egokia eragotziko dute, edo modu negatiboan eragingo diote (Picornell, 2004).

Gainera, ikerketak frogatu egiten du HSAk pertsonengan/biktimgan dituen ondorioak ez direla soilik epe laburrekoak, bizitza osoan zehar gainean eramango duten zama pisutsua baizik. Ildo horretan, psikopatologia ugariarekin erlazionatzen da HSA (Jernbro, Svensson, Tindberg & Janson, 2012), besteak beste: gogo aldartearekin; desoreka depresiboarekin edo antsietatearekin (Gal, Levav & Gross, 2011; Maniglio, 2010); autoestimua (Pérez et al, 2013) eta elikadura zein loaren nahasteekin (Chen et al., 2010). Horrez gain, ume hauen etorkizunari erreparatu dioten zenbait adituk (Miller, Esposito, Weismore & Renshaw, 2013), HSAk lotura izan dezakeela etorkizuneko jarrera bortitzekin zein suizidio joeren garapenarekin aldarrikatu dute.

## ***1.2. Haurtzaroko Sexu Abusuaren inguruko programak***

Alde batetik, gizarte mailan, biktimgan jasaten duten garapen fisiko, psikiko, emozional eta sozialaren narriadura larriaren aurrean, hainbat programa garatzen dira, bai programa kognitibo eta konduktual tradizionalak, bai jokabide psikoterapeutiko konstruktibistak (Ehring, Welboren, Morina, Wicherts, Freitag eta Emmelkamp, 2014), eta horiek guztiak bizitzako uneren batean sexu abusa jasan duten pertsonentzako

programak dira, eta helburutzat dute HSAk eragindako ondorioak arintzea. Gainera, HSA gertatu baino lehen ekidi daitekeela azpimarratuz, prebentzio programak garatzen dira. Lehenengo prebentzio maila gizarte osoarentzat da, eta abusua gertatu aurretik eskaini ohi da, xede nagusitzat autodefentsarako zenbait orientabide ematea duelarik. Bigarren prebentzio maila berriz, ezaugarri edo egoera pertsonal zein sozial jakinak dituztelako arrisku egoeran dauden pertsonentzako programak dira. Eta azkenik, hirugarren prebentzio mailan, egoera bizi izan duten pertsonetara laguntza emateko programak barneratzen dira (Save the Children, 2001).

Lehenengo prebentzio mailan, eskolarako prebentzio programek izugarritzko garrantzia dute HSAren kontrako borrokan. Izan ere, prebentzioa ez den oro beranduegi heltzea da, hau da, umeak/pertsonak abusuak jasan ostean heltzea, eta zenbait adituk eskolarako programen eraginkortasuna azpimarratzen dute. Eskolaurreko eta Lehen Hezkuntzako umeekin erabiltzen diren programek hezkuntza programak izaten dituzte oinarritzat, oro har, eta rol jolasak, filmak, eztabaidak eta antzeko ariketak erabiltzen dituzte (Zwi et al., 2008). Horrelakoak dira, adibidez, *Preventing Child Sexual Abuse* (Brown eta Saieden, 2015), *Why prevention? Why now?* (Tabachnick, 2013) edo *The German Dunkelfeld Project* (Amaya eta Hernández, 2018; Beier et al., 2015).

Aipaturiko ikerketa gehienek hobekuntza esanguratsuak erakusten dituzte ezagutza neurrietan, eta jokabide babesleak arrisku simulatuen aurrean. Gaur egungo datuei erreparatzen badiegu, Save The Childrenek (2018) argitaratutako *Ojos que no quieren ver* txostenean ikus daiteke Kanadan eta Ameriketako Estatu Batuetan hurrekiko sexu abusuak %50 murriztu direla prebentzio programei esker. Izatez, prebentzio programetan parte hartu zuten ikasleek autobabeserako zenbait gaitasun eta ezagutza lortu zituzten, eta zenbat eta gehiagotan errepikatu horrelako jarduerak, gero eta handiago izan zen lortutako babesa. Wurtelen (2009) hitzetan, eskolarako prebentzio programek hurrei sexu jazarpena erakusten duten portaerak bereizten eta hauen aurrean babeserako jokabideak irakasten dizkiete.

Estatu espainolean ere, zenbait Gobernu Kanpoko Erakundek eta adituk hezkuntza sistemarako sortutako programak daude, eta umeentzako kontakizunen bidez jorratzen dute gai larri hau. Horren adibide dira, besteak beste, Vicki Bernadet Fundazioaren (2011) *¿Acabamos la historia?* eta *Cortinas de aire*, Bartzelonako Unibertsitatearen (1999) *Ep! No badis!* edota RANA erakundearen (2010) *7pasos* eta *Grita muy fuerte*. Programa horiekin hainbat esku hartze egin ziren. Vicki Bernadet Fundazioaren bi

programak 2016an erabili zituzten Kataluniako 10 udalerritan, 519 umerekin lan egiteko; jarduera guztiek helburutzat izan zuten aurreikuspena eta sentsibilizazioa garatzea, eta, emaitza gisa, haurren inguruan babes eta komunikazio espazio bat sortzea lortu zen, eta aurreikuspen hobea ez ezik, baita detekzio handiagoa eta erantzun egokia ere, HSA kasu posibleetan (Fundació Vicki Bernadet, 2015). Bartzelonako Unibertsitateko *Ep! No badis!* programaren eraginkortasuna Cerdanyolako bi eskolatan eta Viceko beste bitan ebaluatu zen, eta emaitzek argi utzi zuten umeek, irakasleek eta gurasoek prebentzioaren gaineko edukiak eta ezagutzak barneratu zituztela programan parte hartu ostean, eta partaideak asebeteta geratu ziren lortutako emaitzekin (Rodríguez, 1999). RANA erakundeak Balear Uharteetako 6 eta 11 urte bitarteko 23.900 umerekin lan egin du *Grita muy fuerte* programaren bitartez, eta 2.835 profesional hezi ditu, 146 tailer egin ditu eta 914 familiarekin lan egin du bere tailerretan (RANA, 2018).

Gaiari dagokionez, ikerketek adierazten dute HSA ez dela fenomeno berria baina duela gutxira arte ez zaiola eman merezi zuen arreta (Castro, 1995; Parker eta Tuner, 2014). Hainbat arrazoi tarteko, gai “tabua” izan da, baina, zenbait adituk adierazi dute beldurra dela nagusi, errealitatea jakiteak herrialde guztiak eta gizarte klase guztiak bihurtzen dituelako errudun (De la Puente, 2014). Ikerketak esaten du neskek, mutilek ez bezala, etxean oharrak jasotzen dituztela HSAko arriskuen gainean, modu esplizituan ez bada ere, eta nahiko argi daukatela zer nolako jarrera izan behar duten (Fornós, 2001; Hernández eta Jaramillo, 2010). Dena den, HSA tabua izan denez, erasoen jakinarazpena geldiarazteko harresi bat eraiki da, eta arazo larri hau isilarazteko eta ezkutatzeko giroa izan da nagusi (Vicky Bernadet Fundació, 2018). Gaiari buruzko estereotipoen zein informazio faltaren ondorioz, alde batetik, pertsona helduek HSA egoerak geldiarazteko hamaika aukera galtzen dituzte egunero (Tabachnick, 2003), eta bestetik, abusua jasaten duten haurrak, ezjakintasunean murgilduta, ez dira gai gertatzen ari zaiena azaltzeko, edo ez dira horretara ausartzen (Parker eta Turner, 2014). Gauzak horrela, eta hezkuntza abiapuntutzat hartuta, lan honen helburuak dira gure errealitatean haurrek, neskek zein mutilek, HSArekiko duten “babes eremua” neurtzea eta *Grita muy fuerte* programarekin gauzatutako esku hartzearen bidez “babes eremu” hori zabaltzea, helburua ikasleriaren ongizatea izanik.

## **2. Metodoa**

Diseinu ia-esperimentaleko neurri errepikakorreko (aurreko/ondoko) kontrol talderik gabeko ebaluazioa erabili da.

### **2.1. Partaideak**

Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publiko bateko Lehen Hezkuntzako 1. mailako 22 ikaslek parte hartu zuten, 6-7 urteko 12 neskek eta 10 mutilek, hain zuzen ere. Ikasleek 6 edo 7 urte zituzten, eta maila sozioekonomiko ertaineko familiakoak ziren. Orokorrean, ez zuten ikasteko arazorik.

Hasiera batean, lanaren ezaugarri eta helburuak azaltzeko eta euren oniritzia izateko bai eskolako zuzendaritza taldearekin bai ikasle hauen tutorearekin kontaktatu zen eta ondoren, hauek ikasleen familiak informatu zituzten. Behin, guztien oniritzia izanda, esku hartzea martxan jarri zen.

### **2.2. Bitartekoa eta prozedura**

Esku hartzea gauzatzeko, haurtzaroko tratu txarrak eta sexu abusua prebenitzeko *Grita muy fuerte* programa erabili zen. Neska-mutilei HSA eta tratu txarreko egoera desberdinak bereizten, identifikatzen eta horiei aurre egiten irakatsi nahi dien baliabide didaktikoa da (Benavent, Benavente, Fernández eta Homberg, 2010), hau da, ikasleek sexu abusuaren aurrean autobabeserako izan behar dute jokabidearen ezagutza maila ebaluatzea eta ezagutza hori handitzea xedetzat dituen programa da. Programaren eraginkortasuna neurtzeko, programak berak galdetegiak ditu, esku hartzea egin baino lehen eta egin ondoren betetzeko. Programa, Lehen Hezkuntzako 3. Mailako ikasleekin (7-8 urte) Mexikoko eskola batean aurrera eraman zen eta emaitzek, programak haurra arriskuen aurrea ohartarazteko eraginkorra zela frogatu zuten (Lizarralde eta Lugo, 2016). Ikerlan honetarako, programak aurkezten duen galdetegia bera ikasleen adinera egokitu da eta euskeratu da.

*Galdetegia.* Test moduko galdetegia da, eta hiru erantzun posible ematen ditu (bai, ez edo ez dakit). Kasu bakoitzean erantzun bakarra izango da zuzena, eta erantzun zuzen bakoitzak puntu bat balioko du; gehiengo puntuazioa 9 puntukoa izango da. Ikerketa honetan galdetegiak izan duen Alfa de Cronbach-en fidagarritasun-koefiziente .623koa



da, hau da, fidagarritasun onargarria du (Morales, 2007). Hurrengo irudian (1. irudia), galdetegiko galderak edo egoerak ageri dira, baita HSAtik babestuta dagoela egiaztatzeko umeak galdera bakoitzean eman behar lukeen erantzuna ere.

**1. Irudia:** Programaren galdetegia eta erantzunak.

	<b>Galderak</b>	<b>Erantzun zuzena</b>
<b>1</b>	Norbaitek gustuko ez duzun zerbait egiten badizu, heldu bati kontatzen diozu?	BAI
<b>2</b>	Ikasgelako domina irabazi duzu, eta irakasleak besarkada bat eman dizu, zutaz harro dagoelako. Ondo egin du?	BAI
<b>3</b>	Pertsona heldu batek gustuko ez duzun zerbait egiten badizu, zure errua da?	EZ
<b>4</b>	Zu baino nagusiagoa den ume batek berak nahi duena egiten ez baduzu jo egingo zaituela esan dizu. Pertsona heldu bati edo lagun diezazukeen norbaiti kontatu behar diozu?	BAI
<b>5</b>	Zure lagun baten osabak bere hanketan esertzeko esaten dio zure lagunari eta gustuko ez dituen gauzak egiten dizkio. Zure lagunak inori ez kontatzeko eskatu dizu, lotsa ematen diolako. Zure ustez, norbaiti esan behar diozu?	BAI
<b>6</b>	Zure arrebak asko maite zaitu eta beti ematen dizkizu musuak eta besarkadak. Sekretua gorde dezakegu?	BAI
<b>7</b>	Zure aitak eraztun bat erosi dio amari, sorpresa bat emateko, baina mesedez sekretua gordetzeko eskatu dizu. Zuzen jokatu duzu sekretu hori gordetzen baduzu?	BAI
<b>8</b>	Zure izekok gustatu ez zaizun gauza bat egin dizu, eta kontatzen baduzu errua zuri botako dizula esan dizu. Lagun diezazukeen pertsona bati kontatu behar diozu?	BAI
<b>9</b>	Pertsona heldu guztiek zaintzen dituzte umeak?	EZ

### **2.3. Prozedura**

Aurretiko ebaluazio testa otsailaren 21ean bete zuten ikasle guztiek, 30 minutuko saio batean. Apirilaren 13tik aurrera, 5 astez, esku hartzea gauzatu zen, *Grita muy fuerte* programan oinarrituta. Esan bezala, programak umeei abusu edo tratatu txarreko egoeren aurrean nola jokatu behar duten irakastea du helburu. Horretarako, material hau erabili zen: (1) *Estela, grita muy fuerte!* ipuina, (2) ipuinaren edukiak barneratzeko gida didaktikoa eta (3) *7 Pasos para Proteger a Nuestros Niños* gida, non azpimarratuta datozen HSA ekiditeko umeekin landu beharreko atal garrantzitsuenak. Saio bakoitzean jorratutako gaiak honako hauek izan ziren:

1. saioa: Ipuina eta maitatzen gaituzten pertsonak
2. saioa: Sekretuak
3. saioa: Laguntza eskatu
4. saioa: Umeak ez dira errudunak
5. saioa: Ezetz esan

Jarduerak astean behingo ordubeteko saioetan egituratu ziren. Saio bakoitzaren hasierako 45 minutuak HS Ari eta tratatu txarrei buruzko ezagutzak eta gaitasunak garatzeko erabili ziren, eta amaierako 15 minutuak, ordea, ikasitakoa eta aurreko asteetan landutakoa erreparatzeko eta indartzeko. Esku hartzearen azken saioa egin eta astebetera, maiatzaren amaiera aldera, esku hartzearen ondoko 1. testa egin zen, eta uda ostean, urrian, 2. testa. Programak agindu moduan, esku hartzearen ondoko bi frogetan aurretiko ebaluazioan erabilitako galdetegi bera erabili zen.

### **2.4. Emaitzak**

Partaideak 6 eta 7 urte bitarteko haurrak dira; partaideen %54.5 neskek dira, eta %45.5 mutilak. Bildutako datuen analisi estatistikoa SPSS (Statistical Package for Social Science) 24.0 programarekin egin da.

Izaera deskribatzaileko hasierako zenbait analisiren ostean, maiztasun banaketa, ehunekoak, batezbestekoak eta desbideratze tipikoak, kasuaren arabera T edo U estatistikokoak erabiltzen dira, hasierako eta esku hartzearen osteko galdetegietan laginen arteko desberdintasun posibleen ebidentziak topatzeko.

Kolmogorov-Smirnow proba aplikatuta ikus daiteke aurretiko testaren puntuazioak ohiko banaketa duela:  $p=.2$ . Ez da gauza bera gertatzen esku hartzearen ondoko testetan, ez batean (ondoko testa 1), ez bestean (ondoko testa 2)  $p<.05$ .

**1. taula.** Batezbestekoa ( $\bar{x}$ ), desbideratze tipikoa (S), mediana ( $\tilde{x}$ ), Student-en t, Mann-Whitney-ren U, esanguragarritasuna (p) eta efektuaren tamaina ebaluaturiko 3 uneetan.

	Neskak (N=12)			Mutilak (N=10)			Desberdintasunak (Student-en t) (Mann-Whitney-ren U)U	Efektuaren tamaina (d de Cohen)
	$\bar{x}$	S	$\tilde{x}$	$\bar{x}$	S	$\tilde{x}$		
Aurretiko testa	6.25	1.48	6	3.80	1.13	4	t(20) = 7.4; p = .00	1.22
Ondoko testa 1	8.91	.28	9	8.40	.51	8	U = 29, Z = -2.53; p=.01	.88
Ondoko testa 2	8.58	.79	9	7.30	1.88	8	U = 32, Z = -1.99; p=.04	1.76

Aurretiko testeko lagin independenteetarako Student-en t frogaren arabera (taula 1), alde nabarmenak daude mutilen eta nesken artean. Neskek mutilek baino hobeto ezagutzen dute zer egin behar den sexu abusuen aurrean norbere burua babesteko.

Lehen aipatu den bezala, esku hartzearen osteko 1. eta 2. Testek Kolmogorov-Smirnow  $p<.05$  dute, hau da, ez dute ohiko banaketa eta U Mann-Whitney froga ez parametrikoren arabera, bi test horietan ere nabarmenak dira mutilen eta nesken arteko aldeak (taula 1). Bi ondoko test hauetan, aurretiko testean bezala, efektuaren tamaina sendoa da Kotrlik eta Williamsen arabera (2003). Datu guzti hauek ikusita laginaren neskek mutilek baino autobabes maila handiagoa dute sexu abusuen aurrean baieztatu ahal dugu.

Bestalde, testen puntuazio globalen batezbestekoei erreparaturaz, lagin erlazionatuetarako T students frogak dioenez HSArekiko ezagutza nabarmenki hobetzen da bai mutilen

artean, bai nesken artean. Aurretiko galdetegiaren eta ondorengo 1. frogaren arteko aldeak nabarmenak dira, baita aurretiko galdetegiaren eta ondorengo 2. frogaren artekoak ere,  $p < .05$  bi generoetarako.

Aurretiko testean deigarria da zer puntuazio txikia lortzen duten, batez ere mutilek. Esku hartzea gauzatu ondoren, item bakoitzean lorturiko puntuazioek adierazten dute neskek zein mutilek egoera natural edo “osasuntsuak” egoera “kaltegarrietatik” bereizteko gaitasuna lortu dutela, edo gutxienez egoera horien aurrean arduratuago daudela.

Item bakoitzeko puntuazioei erreparatuz gero, ikasi dutenen ehunekoa ikus dezakegu. Hau da, zenbatek ez zuten autobabeserako erantzuna ezagutzen aurretiko testean eta esku hartzearen osteko 1. eta 2. frogetan, aldiz, erantzun zuzena eman duten (2. taula).


**2. taula.** *Ikasi duten ikasleen ehunekoa.*

	Item 1	Item 2	Item 3	Item 4	Item 5	Item 6	Item 7	Item 8	Item 9
Ondoko Testa 1	%100 8	%50 1	%100 10	%100 11	%91.7 11	%100 6	%100 6	%93.8 15	%93.3 14
Ondoko Testa 2	%87.5 7	%100 2	%90 9	%81.8 9	%66.7 8	%100 6	%100 6	75% 12	%80 12


Galdera bakoitza aztertuz gero, bi generoetan deigarriak dira 8. itemean (Zure izekok gustatu ez zaizun gauza bat egin dizu, eta kontatzen baduzu errua zuri botako dizula esan dizu. Lagun diezazukeen pertsona bati kontatu behar diozu?) eta 9. itemean (Pertsona heldu guztiek zaintzen dituzte umeak?) lortutako emaitzak. 3. taulan ikusten denez, 8. galderan 15 ikaslek ikasi dute zein den erantzun zuzena, eta 9. galderan, berriz, 14k, eta, ehunekoa zertxobait txikitzen bada ere, 2. frogan 12 ikaslek oraindik ikasitakoa mantentzen dutela ikusten da.

Emaitzak sexuen arabera bereizten baditugu (2. irudia eta 3. irudia), nesken emaitzak mutilenak baino nabarmenki altuagoak direla ikus dezakegu. Hamabi neskatik hiruk bederatzi puntuak lortu zituzten, eta gehienek puntuazio erdia baino gehiago jaso zuten. Mutilek, berriz, zalantza asko izan zituzten, eta parte hartu zuten 10 mutiletik bakar batek ere ez zituen bederatzi puntuak lortu; horien gehieneko puntuazioa 3 edo 4 izan zen.

**2. Irudia:** Neskek ebaluatoriko 3 uneetan item bakoitzean lorturiko emaitzak



**3. Irudia:** Mutilek ebaluatoriko 3 uneetan item bakoitzean lorturiko emaitzak.



### 3. Eztabaida

Hasierako ebaluaziorako (aurretiko testa) eta amaierako ebaluazioetarako (ondoko testa 1 eta ondoko testa 2) erabilitako galdetegien emaitzei behatuz gero, argi geratzen da ikerlan honen partaideek sexu abusuarekiko babesa handitu dutela. Izatez, aurretiko testaren eta esku hartzearen ondoko 1. testaren artean antzemandako desberdintasunak eta aurretiko testaren eta esku hartzearen ondoko 2. testaren artean antzemandakoak esanguratsuak dira,  $p < .05$ , nahiz eta azken testekoak, epe-luzerakoak, txikitu egin diren. Hortaz, eskola arloan esku hartzeko beste programa batzuekin gertatzen zen moduan (Macmillan et al., 1994; Ripens, Aleman eta Goudena, 1997; Nemerofsky, Carran eta Rosenberg, 1994), azterlan honetan ere agerian geratzen da *Grita muy fuerte* programa eraginkorra dela 6-7 urteko eskola umeentzat. Laginaren kopurua txikiak lorturiko emaitzak orokortzea mugatzen du, beraz komenigarria izango litzateke ikerlan hau beste zentroetara zabaltzea ea lortutako emaitzak errepikatzen diren frogatzeko.

Aurretiko testak umeen ezagutzak neurtu zituen gaiari buruzko inolako daturik edo informaziorik eman gabe. Horrela, umeen arteko ezagutza desberdintasunak neurtu ahal izan ziren, eta etxean edo kalean gaiaren gainean zenbat informazio jasotzen duten ikusi. Horrela izanik, aurretiko testeko puntuazioaren batezbestekoa 5.14 puntukoa izan zen. Del Campok eta Lopezek (2006) euren ikerketetan adierazi duten moduan, aurre ebaluazioko testean, umeek HSAri buruzko informazio gutxi daukate, oro har. Horrez gain, egoera arriskutsuak bereizteko eta horien aurrean jokatzeko gaitasun eskasa zutela adierazi zuten. Hain zuzen ere, bederatzigarren galderan (“*Pertsona heldu guztiek zaintzen dituzte umeak?*”), lau ume bako ez zuten lortu puntuatzea, eta Martínezek (2000) adierazi legez, ikus daiteke umeentzat ia ezinezkoa dela helduek haiekiko dituzten jarreraren motibazioak bereiztea edo epaitzea. Eta, item horri begira, kontuan hartu behar da gehienetan haurrekin konfiantza, aginte edo botere harremana duten pertsonak izaten direla erasotzaileak (Ibarzola, 2012). Haurren kontrako sexu abusuak batez ere familiako ingurunean gertatzen dira, hau da, gurasoak, osabak, anaiak, aita/amaordeak izaten dira haurren errugabetasuna aprobeztatzen dutenak (Morillo, Montero, Colmenares, 2012). Gainera, Acuña (2014) aldarrikatzen duen moduan, edozein motatako familietan gertatzen dira horrelakoak, edozein direla ere ezaugarri sozialak eta kulturalak.

Emaitzei begiratuta, badirudi hasieratik neskek mutilek baino autobabes maila handiagoa dutela sexu abusuarekiko, beharbada ikerketa honen neskek, Fornósek (2001) edo eta Hernández eta Jaramillok (2010) adierazten duten bezala, etxean oharrak jaso dituzte HSAko arriskuen gainean.

Post-test1 emaitzekin alderatuz, guztiz gogobetegarriak izan ziren. Puntuen 8.68 lortu zuten eta. Hobekuntza nabarmena ikus daiteke aurreko 5.14arekin konparatuz gero. Egoera arriskutsuen aurrean izan beharreko jarreraren inguruko ezagutzak handitu egin ziren programari esker (MacMillan, MacMillan, Offord, Griffith eta MacMillan, 1994; Del Campo eta López, 2006; Vélez, 2015) kasu honetan 3.54 puntutan handitu ziren. Neskei dagokionez, 12 nesketatik 11ak eta 10 mutiletik 5ek bederatziko puntuazioa lortu zuten, hau da, puntuazio gorena. Gainera, emaitzak epe luzera pixkat jeisten badira ere, ikus daiteke ere nola pretest eta post-test2en arteko ezberdintasunak esanguratsuak diren. Hau da, epe luzera (5 hilabete) programaren eraginkortasuna mantendu egiten da beste eskuhartzeekin gertatzen zen moduan (Hébert, Lavoive, Piche eta Poitras 2001; Lee eta Tang 1998, Del Campo eta López, 2006). Programak erabilitako jarduera praktikoak eraginkorrak izan dira epe luzera zenbait jokabide barneratzeko (Fryer, 1987; Ripens et al., 1997). Hala ere, ikerketak aipatzen duenez, ezagutzak mantentzeko egokia izaten da noizean behin errepikatzea (Walsh, Zwi, Woolfenden eta Shlonsky, 2018).

#### **4. Ondorioak**

*Grita muy fuerte* esku hartzea programa eraginkorra izan da 6-7 urteko umeen autobabeserako jarreraren ezagutza eremua zabaltzeko.

Esan beharra dago premia handia zegoela HSAren inguruan esku hartzeko; izan ere, hasieran nabarmen geratu zen umeen artean gaiari buruzko ezagutza falta handia zegoela. Esku hartzearen bidez, ezagutzera eman nahi ziren umeentzako kaltegarriak izan daitezkeen egoerak, eta, jarduerak egin osteko testetan ikus daitezkeenez, helburu hori lortu da, neurri batean. Tratu txar edo abusu sexualeko egoerak ez badira ere haientzat kaltegarriak edo mingarriak izan daitezkeela ulertu dute, eta laguntza eskatzea beharrezkoa dela barneratu dute.

Hurrekin lan egiten duten profesionalek gero eta prestakuntza zehatzagoa eta egokiagoa eduki behar dute, umeei bizi ditzaketan egoera desberdinetan lagundu ahal izateko. Izan ere, irakasleen eskuetan dago konplexutasun handiko arazoa, eta haurren segurtasunari, ongizateari eta etorkizunari eragingo dioten erabakiak hartzearen ardura hartu behar da. Umeei, familiarekin eta sexu abusuko egoerekin lan egitea oso zaila da, eta erabakiak hartu behar izateak ezagutza eta gaitasun bereziak edukitzea eta horiek etengabe berritzea eskatzen du. Hori guztia dela eta, programa hau irakasleen formakuntza hobetzeko baliabide bat izan daiteke, mundu osoan eragin handia duen arazo baten gaineko interesa pizteko baliabidea den heinean. Izan ere, Acostak (2009) esaten duenez, irakasleak prebentzio programekin lan egiteko leku ezin hobean daude.

Esperientzia honekin lortutako emaitza onak aintzat hartuta, deskribatutako programa beste ikastetxe eta hezkuntza etapa batzuetan ere erabil daitekeela ikusi ahal izan da, baina horretarako elementu eta osagai guztien ebaluazio zorrotzagoa egin beharko litzateke, programaren eraginkortasunean zerikusia izan duten faktore edo aldagaiak arretaz zehazteko. Ebaluazio horrek programaren osagai garrantzitsuak indartu eta hutsalak baztertuko ditu.

Lan honetan deskribatutako esperientziak eta antzeko beste batzuek borondatezko ekintza izateari utzi behar diote, eta modu orokorrean gauzatu behar dira, denboran zehar jarraitutasuna emanaz eta ikastetxeen dinamiketan eta curriculumean txertatuz eta kontuan izango da eskolarako prebentzio programek izugarritzko garrantzia duten arren HSAren kontrako borrokan eurek bakarrik ezin dutela HSAren prebentzioa lortu (Wurtele, 2009).



## Bibliografía

- Acosta, A. (2009). *Protección de la primera infancia: abuso, violencia, abandono, niños de la calle, explotación laboral*. Madrid: OEI.
- Acuña, M. J. (2014). Abuso sexual en menores de edad: generalidades, consecuencias y prevención. *Medicina Legal de Costa Rica*, 31(1), 17-24.
- Aisa, E., De la Fuente, A., Garate, J., García, T., González, J., Layburu, M.; ... eta Urturi, M. (2000). *Tratu txarrak eta babesik eza umezaroan eta nerabezaroan: arrisku egoeran daudenentzako atentzioa*. Bilbo: Eusko Jaurlaritzza (Osasun-saila) eta Bizkaiko Foru aldundia. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.1255>
- Alonso, M., Beltrán, F., Gómez, Y., Guzmán, P., Pérez, I. eta Villanueva, I. (2011). Funcionamiento familiar en familias víctimas del abuso sexual intrafamiliar. *Psicogente*. 14(25), 100-121.
- Amaya, S. eta Hernández, S. (2018). Proyecto Dunkelfeld en Colombia: Viabilidad teórica. *Revista Iberoamericana de Psicología*, 11(1), 91-100.
- Barth, J., Bermetz, L., Heim, E., Trelle, S., y Tonia, T. (2013). The current prevalence of child sexual abuse worldwide: A systematic review and meta-analysis. *International Journal of Public Health*, 58(3), 469-483. <https://doi.org/10.1007/s00038-012-0426-1>
- Beier, K. M., Grundmann, D., Kuhle, L. F., Scherner, G., Konrad, A., Amelung, T. (2015). The German Dunkelfeld project: a pilot study to prevent child sexual abuse and the use of child abusive images. *Journal Sex Med*. 12(2), 529-542. <https://doi.org/10.1111/jsm.12785>
- Benavent, S., Benavente, B., Fernández, L. eta Homberg, E. (2010). *Grita muy fuerte: Programa de prevención del maltrato y el abuso sexual infantil*. Barcelona: Editorial Fineo
- Berliner, L., Briere, J., Hendrix, C. T., Jenny, C., Myers, J. E. B. eta Reid, T, A. (2000). *The APSAC Handbook on Child Maltreatment*. California: Sage Publications, Inc.
- Brown, J. eta Saiden, A. (2015). *Preventing Child Sexual Abuse: Towards a national strategy for England*. England: NSPCC
- Castro, C. (1995). Maltrato Infantil. *Suma Psicológica*, 2(2), 167-223.
- Chen, L. P., Murad, M. H., Paras, M. L., Colbenson, K. M., Sattler, A. L., Goranson, E. N.,... Zirakzadeh, A. (2010). Sexual abuse and lifetime diagnosis of psychiatric

- disorders: systematic review and meta-analysis. *Clinic Proceedings*, 85(7), 618-629. <https://doi.org/10.4065/mcp.2009.0583>
- Cusó, M. (1995). Infancia en riesgo e infancia maltratada. *Comunicación, lenguaje y educación*, 27, 87-96. <https://doi.org/10.1174/021470395321341078>
- Del Campo, A. eta López, F. (2006) Evaluación de un programa de prevención de abusos sexuales a menores en Educación Primaria. *Psicothema*, 18(1), 1-8. <https://doi.org/10.6035/14016.2017.193563>
- De la Puente, A. (2014) Abuso Sexual Infantil, un gran tabú sin datos estatales. *Huffington Post*. [https://www.huffingtonpost.es/2014/05/28/abusos-sexuales-tabu\\_n\\_5405064.html](https://www.huffingtonpost.es/2014/05/28/abusos-sexuales-tabu_n_5405064.html) [Berreskuratua: 2018/12/23]
- Ehring, T., Welboren, R., Morina, N., Wicherts, J. M., Freitag, J. eta Emmelkamp, P. M. (2014). Meta-analysis of psychological treatments for posttraumatic stress disorder in adult survivors of childhood abuse. *Clin Psychol Rev*, 34(8), 645-57.
- Fornós, A. (2001). La crianza: su importancia en las interacciones entre padres e hijos. *Sepypna*, 1, 183-198.
- Fryer, G. E., Kraizer, S. K. eta Miyoshi, T. (1987). Measuring children's retention of skills to resist stranger abduction: use of the simulation technique. *Child Abuse & Neglect*, 11(2), 181-185. [https://doi.org/10.1016/0145-2134\(87\)90056-1](https://doi.org/10.1016/0145-2134(87)90056-1)
- Gal, G., Levav, I., eta Gross, R. (2011). Psychopathology among adults abused during childhood or adolescence - Results from the Israel-Based World Mental Health Survey. *Journal of Nervous & Mental Disease*, 199, 222-229. <https://doi.org/10.1097/nmd.0b013e31820c7543>
- Hébert M, Lavoie F, Piche C. eta Poitras M. (2001). Proximate effects of a child sexual abuse prevention program in elementary school children. *Child Abuse & Neglect* 25(4), 505-22. [https://doi.org/10.1016/s0145-2134\(01\)00223-x](https://doi.org/10.1016/s0145-2134(01)00223-x)
- Hernández, G. eta Jaramillo, C. (2010). *La educación sexual de niñas y niños de 6 a 12 años: Guía para madres, padres y profesorado de Educación Primaria*. Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia. <https://doi.org/10.6035/forumrecerca.2012.17.13>
- Ibarzola, Y. (2012). *Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta ematea*. Euskal Herria: Elhuyar Edizioak.
- Jernbro, C., Svensson, B., Tindberg, Y., eta Janson, S. (2012). Multiple psychosomatic symptoms can indicate child physical abuse – Results from a study of Swedish

- schoolchildren. *Acta Paediatrica*, 101, 324–329. <https://doi.org/10.1111/j.1651-2227.2011.02518.x>
- Kotrlík, J. W., eta Williams, H. A. (2003). The incorporation of effect size, information technology, learning, and performance research. *Information Technology, Learning and Performance Journal*, 21(1), 1-7.
- Lee, Y. K. eta Tang, C. S. (1998). Evaluation of a sexual abuse prevention program for female Chinese adolescents with mild mental retardation. *American Journal of Mental Retardation*, 103(2), 105–16. [https://doi.org/10.1352/0895-8017\(1998\)103<0105:eoasap>2.0.co;2](https://doi.org/10.1352/0895-8017(1998)103<0105:eoasap>2.0.co;2)
- Lizarralde, A. eta Lugo, L. F. (2016). *Prevención de abuso sexual infantil en las escuelas a través del programa "Grita muy fuerte"*. Mexiko: Educadores sin Fronteras.
- Losada, A. V. (2012). Epidemiología del Abuso Sexual Infantil. *Revista de Psicología GEPU*, 3(1), 201-229.
- MacMillan, H., MacMillan, J., Offord, D., Griffith, L. eta MacMillan, A. (1994). Primary prevention of child sexual abuse: A critical review. Part II. *Journal of child psychology and Psychiatry and allied disciplines*, 35(5), 857-876. <https://doi.org/10.1111/j.1469-7610.1994.tb02299.x>
- Maniglio, R. (2010). Child sexual abuse in the etiology of depression: A systematic review or reviews. *Depression and Anxiety*, 27, 631-642. <https://doi.org/10.1002/da.20687>
- Mártinez, J. (2000). Prevención del Abuso Sexual Infantil: Análisis Crítico de los Programas Educativos. *PSYKHE*, 9(2), 63-74.
- Mesa P. eta Moya, L. (2011). Neurobiología del maltrato infantil: el ‘ciclo de la violencia’. *Revista Neurol.*, 52(8), 489-503. <https://doi.org/10.33588/rn.5208.2009256>
- Miller, A. B., Esposito-Smythers, C., Weismore, J. T. eta Renshaw, K. D. (2013). The relation between child maltreatment and adolescent suicidal behavior: A systematic review and critical examination of the literature. *Clinical Child and Family Psychology Review*, 1, 1–27. <https://doi.org/10.1007/s10567-013-0131-5>
- Morales, P. (2007). *La fiabilidad de los test y las escalas*. Madrid: Universidad Pontificia de Comillas.
- Morillo, B., Montero, L. eta Colmenares, Z. (2012). Conocimiento de los padres en la prevención del abuso sexual infantil. *Enfermería Global*. 11, 1-6.

- Nemerofsky, A., Carran, D. eta Rosenberg, L. (1994). Age variation in performance among preschool children in sexual abuse prevention program. *Journal of Child Sexual Abuse*, 3(1), 85-102. [https://doi.org/10.1300/j070v03n01\\_06](https://doi.org/10.1300/j070v03n01_06)
- OMS (2016). *Maltrato Infantil*. <http://www.who.int/mediacentre/factsheets/fs150/es/> [Berreskuratua: 2018/3/25]
- Parker, B. eta Turner W. (2014). Psychoanalytic / psychodynamic psychotherapy for children and adolescents who have been sexually abused. *Research on Social Work Practice*, 24(4), 389-399. <https://doi.org/10.1177/1049731514525477>
- Pérez, G., Olfson, M., Villegas, L., Morcillo, C., Wang, S., eta Blanco, C. (2013). Prevalence and correlates of child sexual abuse: a national study. *Comprehensive Psychiatry*, 54(1), 16-27. <https://doi.org/10.1016/j.comppsy.2012.05.010>
- Piaget, J. (1964). *Psikologiako sei ikerlan*. Bilbao: GAIK argitaletxea.
- Picornell, A. (2004). Modelo definitorio de desamparo infanto-juvenil: un instrumento para la planificación estratégica, *Portularia: Revista de Trabajo Social*, 4, 277-286 .
- Pirozzi, G. (2005). Definición de la Infancia. *Unicef*. <https://www.unicef.org/spanish/sowc05/childhooddefined.html> [2017/11/30]
- RANA Fundación. (2018). *Fundación RANA: Información*. <https://www.fundacionrana.org/es/fundacion> [Berreskuratua: 2018/01/25]
- Ripens, J., Aleman, A. eta Goudena, P. (1997). Prevention of child sexual abuse victimization: A meta-analysis of school programs. *Child Abuse and Neglect*, 21(10), 975-987. [https://doi.org/10.1016/s0145-2134\(97\)00058-6](https://doi.org/10.1016/s0145-2134(97)00058-6)
- Rodríguez, J. (1999). *¡Eh! ¡No te despistes! Programa comunitario de prevención del abuso sexual y otros malos tratos infantiles: Descripción del programa y resumen de resultados*. Barcelona: Diputació de Barcelona. [https://doi.org/10.1016/s0213-9111\(93\)71136-x](https://doi.org/10.1016/s0213-9111(93)71136-x)
- Save The Children (2001). *Abuso Sexual Infantil: Manual para profesionales*. [https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/manual\\_abuso\\_sexual.pdf](https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/manual_abuso_sexual.pdf) [Berreskuratua: 2018/1/23]
- Save The Children, (2017). *El abuso sexual infantil en España*. *Sal terrae*, 105, 591-599.
- Save The Children (2018). *Ojos que no quieren ver: Los abusos sexuales a niños y niñas en España y los fallos del sistema*. Madrid: Dubidu Estudio.
- Stoltenborgh, M., Bakermans, M. J., van Ijzendoorn, M. H. eta Alink, L. R. (2013). Cultural-geographical differences in the occurrence of child physical abuse? A

- meta-analysis of global prevalence. *International Journal of Psychology*, 48(2), 81–94. <https://doi.org/10.1080/00207594.2012.697165>
- Tabachnick, J. (2003). STOP IT NOW! An innovative social marketing campaign targeting sexual abusers and the people who know abusers. *Social Marketing Quarterly*, 9(1), 42-47.
- Tabachnick, J. (2013) Why prevention? Why now? *International Journal of Behavioral Consultation and Therapy*, 8(3), 55–61. <https://doi.org/10.1037/h0100984>
- Torres, A. (2010). *Perfiles de competencias socioafectivas en niños y niñas de riesgo psicosocial*. Tenerife: Servicio de Publicaciones Universidad de la Laguna.
- UNICEF, (2014). Unicef Comité Español. Memoria Anual 2014. [https://old.unicef.es/sites/www.unicef.es/files/memoria\\_unicefcomiteespanol2014.pdf](https://old.unicef.es/sites/www.unicef.es/files/memoria_unicefcomiteespanol2014.pdf). [Berreskuratua 2018-01-15]. <https://doi.org/10.18356/c4320763-es>
- Vélez, M. (2015). Evaluación de un Programa de Promoción de Conductas de Autoprotección para la Prevención del Abuso Sexual, Medellín, Colombia. *Revista Médica de Risaralda*, 21(1), 3-8. <https://doi.org/10.22517/25395203.13841>
- Vicki Bernadet Fundazioa. (2011). *Formación y Prevención: Escuela y Familia*. <https://www.fbernadet.org/es/formacion-y-prevencion/escuela-y-familia/#primaria-es> [Berreskuratua: 2018-11-11].
- Vicki Bernadet Fundazioa. (2015). *Memoria 2015*. <https://studylib.es/doc/7849410/descargar-memoria---fundaci%C3%B3-vicki-bernadet> [Berreskuratua: 2018-12-23]
- Vicki Bernadet Fundazioa. (2018). *Abuso Sexual Infantil: aprender a proteger desde la escuela*. <https://www.fbernadet.org/es/prevencion-abuso-sexual-en-la-escuela/> [Berreskuratua 2018-11-11]. <https://doi.org/10.4321/s1695-61412012000100001>
- Walsh, K., Zwi, K., Woolfenden, S., eta Shlonsky, A. (2018). School-Based Education Programs for the Prevention of Child Sexual Abuse A Cochrane Systematic Review and Meta-Analysis. *Research on social work practice*, 28(1), 33-55. <https://doi.org/10.1177/1049731515619705>
- Wurtele, S. (2009) Preventing sexual abuse of children in the twenty-first century: Preparing for challenges and opportunities. *Journal of Child Sexual Abuse*, 18(1), 1–18. <https://doi.org/10.1080/10538710802584650>

Zwi, K., Woolfenden, S., Wheeler, D., O'Brien T., Tait, P. eta Williams, K. (2008).  
*Programas educativos en escuelas para la prevención del abuso sexual infantil*,  
pp. 1-33. Update. Chiester, UK.